



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urtarrilaren 4a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Legea, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa. Akats zuzenketa (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzeari, N-121 errepidean baitago, hobe dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, abiadura handiko tren eraiki, finantzatu eta mantentzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuarekiko harremanen balioespenari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egin (16. or.).
- Galdera, alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakitekoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (17. or.).
- Galdera, diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuen prestazioen barruan sartzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (18. or.).
- Galdera, 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (18. or.).

- Galdera, Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (20. or.).
- Galdera, Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (20. or.).
- Galdera, Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egin (21. or.).
- Galdera, Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (21. or.).
- Galdera, Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa (23. or.).
- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa (28. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2006. urterako ordutegi ofiziala (29. or.).
- Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak (29. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatze- ari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Foru Legea, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Administrazio publikoak ez dira berdin ulertzen XXI. mendean eta XIX.ean edo XX.ean. Administrazio publikoek estatu liberalaren ezaugarriak zituzten XIX. mendean; hau da, administrazioak ordena publikoa eta juridikoa zaintzea zuen ardurara, batez ere. XX. mendean, estatu sozial baten pentsamolde interbentzionistaren isla zen administrazioa mendebaldeko Europan, non gizartearen eta herritarren oinarrizko behar guztiak betetzea baitzen helburua. Baina, XXI. mendean, administrazioa guztiz bestelakoa ageri zaigu: ezinbesteko tresna da demokrazia garatzeko, erabaki publikoak hartzen diren prozesuetan interesdun guztien parte-hartzea bermatzeko eta gizartearen zein herritarren aurrerapena segurtatzeko.

Gaur egun, administrazioak zerbitzu publiko jakin batzuk ematen ditu politika orokor zabalen esparruan, laguntza behar partikularrari egokitu nahian eta, zenbait kasutan, pertsonen aukera berdintasuna bultzatuz, neurri diskriminatzaile positiboak baliatu behar badira ere. Guztiek Konstituzioak, nazioarteko itunek eta legeek aitortutako

funtsezko eskubide eta askatasunak izatea da helburua.

Pentsamolde ideologiko berri horretan, herritarrei zerbitzua ematen dieten hurbileko erakundeak diren aldetik, administrazioek printzipio eta irizpide orokorrak, oro har onartuak, hartzen dituzte eta eginkizunak haiei egokitzen; esate baterako, gardentasuna, eraginkortasuna, efizientzia, kalitatea, parte-hartzea, ekonomia, lastertasuna, aurreneurriak, erantzukizuna, unibertsaltasuna...

Europako eta Espainiako administrazio publiko nagusiek, maila guztietan, Europar Batasunean, estatuan, erkidegoetan eta herrietan, ahalegin handia egin dute azken urteotan egiturak modernizatzen, eginkizunak antolatu eta eguneratzen eta kalitateko zerbitzu-ematearen eredia bereganatzen. Teknologia berriak txertatze hutsean gelditzen ez den administrazio moderno horren gorakadan garrantzi berezia du, alde batetik, administrazioen berrantolamenduak. Zeregin hori bultzatu du Foru administrazioak honako hauek baliatuz: Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, modernizazio eta berrikuntza plana –Nafarroako Gobernuak 2002ko azaroan onetsia– Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egiturari eta funtzionamenduari buruzko Foru Dekretua, Toki Administrazio Departamentuarena, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarena –Nafarroako Gobernuaren ageriko nahia adierazten du, zerbitzu publikoen modernizazioa eta kalitatea sustatzeko–, eta herrietan, Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea. Bestetik, giza baliabideen prestakuntza iraunkorra, Nafarroan, besteak beste, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta sindikatuek bultzatua. Azkenik, ematen diren zerbitzuen eta diseinatzen diren politika publikoen kalitatea eba-

luatzeko irizpideak, sektore publikoan eta zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuetan arrakasta izan duten teknikak erantsiz, askotan.

Nafarroako Foru Komunitateak ezin zuen bazterrean gelditu, zerbitzuen kalitatea modernizatu eta hobetzeko bide horietatik kanpo. Erronka horren jakitun, beste esparru juridiko bat taxutu behar da, metodologia eta teknika nagusiak bateratuko dituen, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneko politika publikoak eta Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko; unitate administratiboek bere auto-ebaluazioa egiteko, batez ere. Orobat, erakunde independenteek kanpoko ebaluazioa egiteko. Hori guztia, bere horretan xede diren ebaluazioak egiteko ez ezik, beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak txertatzeko ere bai.

Esparru juridiko berri hori lege batean jaso behar da, hain da garrantzitsua zeregina; bestalde, aplikazio eremua ez dagokio Foru Komunitateko administrazioaren organo eta erakundeei bakarrik, baita Nafarroako administrazio publiko guztiei ere, Nafarroako toki entitateei, batez ere.

Ebaluazioa, auto-ebaluazioa edo kanpoko ebaluazioa izan, Nafarroako administrazio publikoen funtsezko politiken tresna osagarria da. Azken finean, haien parte da, eta Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa dela-eta, arlo zabal batean eskumenak dituen, metodologiak zehaztuko dituen ebaluazio esparru orokor hori ezartzeko eskumena ere Nafarroako Foru Komunitateari dagokio. Halaber, erakunde ebaluatzaileak zehazteko.

Lege esparru berriak ebaluazio sistema publikoa diseinatzen du politika publikoentzat eta ematen diren zerbitzu publikoen kalitatearentzat; izan ere, zerbitzuak eta politikak publikoak izanda, ebaluazioak ere publikoak izan behar du.

Sistema horretan era desberdineko neurriak sartzen dira. Alde batetik, politiken ebaluazioa eta, bestetik, zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa, aipatu modalitate guztietan, auto-ebaluazioak, zerbitzuen kartak izenekoak, edo kanpoko ebaluazioak barne. Elementu bat errepikatzen da ebaluazio guztietan: borondatezkotasuna. Ebaluazioa ez da inposatzen; administrazio edo unitate eskudun bakoitzak bereganatutako kulturaren isla da eta bere denborazko aurreikuspenen arabera garatzen da. Eragile publiko bakoitzak jakin behar du zein den unerik egokiena hura burutzeko, zein eremu materialen gain egin eta zein den antolaketari hobekien egokitzen zaion metodoa edo tekni-

ka; izan ere, arlo honetan ez dago aginduzko edo itxitako metodori.

Bada, politika publikoak ebaluatzeko, auto-ebaluazioa joko da edo kanpoko ebaluazioa, organo publiko baten bitartez. Zerbitzu publikoen kalitatea auto-ebaluazioaren bidetik (modurik oinarritzkoena) ebaluatzeko, zerbitzuen kartak aplikatzen ditu. Zabaldua dago horien erabilera Espainiako administrazioetan. Administrazioak herritarrei zerbitzuen berri emateko darabiltzan dokumentu administratiboak dira, laguntza segurtatzen duten konpromisoak nahita egiten ditu bere, baita jarraipenaren adierazleak ere; eta zerbait konplexuago nahi bada, European finkatuta dauden ereduak ere onartzen ditu, hala nola EFQM (European Foundation for Quality Management edo Kalitatea Kudeatzeko Europar Fundazioa) edo ebaluazioaren esparru komuna (CAF, Common Assessment Framework), baita beste edozein metodo homologarri ere, erabiltzaileen iritzia -behar adina-, haien gogobetetasuna eta hobetzeko programak jasotzen baditu.

Bestetik, sistemak kalitate sariak banatzen ditu, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzen nabarmendutako Nafarroako administrazioen menpeko organo eta entitateen artean. Foru legeak aukera eskaintzen du bikaintasunaren eredu europarrak saritzen dituzten irabazi asmorik gabeko fundazio edo entitateak izateko sari-emaitzak; hots, kategoria edo erakunde gehiago ez sortzeko, lehendik daudenak baliatzeko baizik.

Azkenik, ebaluazioaren edozein sistema publikotan bezala, foru legeak ebaluazioaren organo arduraduna definitzen du. Horretarako, administrazioarteko organo kolegiatu bat sortzen da, non ordezkaturata baitaude Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren unitate eta erakunde eskudunak edo zerbitzu publikoen kalitatearekin zerikusia dutenak, baita Nafarroako toki entitateak ere; orobat, jarduera honetara emandako fundazio publiko(k). Horrela, ez da erakunde edo entitate berri sortzen; beraz, gastu publikoak aurrezten da eta efizientzia handitzen, sektore publikoaren antolaketan. Aldi berean, administrazioen eta sektore publikoaren kalitatea hobetzen diharduten eragile nagusien koordinazioa eta parte-hartzea bultzatzen da.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honek ebaluazio sistema publikoa eratu eta garatzeko behar diren neurriak hartzea du xede, bai Nafarroako administrazio publikoek

diseinatu eta burututako politika publikoak, bai administrazio horiek, zeinek bere eskumenen barrenean, nafarrei ematen dizkieten zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko.

2. Hauek dira foru legeak aipatzen dituen neurriak:

a) Nafarroako administrazio publikoen politika publikoen ebaluazioa.

b) Nafarroako administrazio publikoetako unitate eta erakundeek ematen dituzten zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzea.

c) Zerbitzuen kartak ezartzea; haietan, zerbitzu publikoen zer-nolakoak jakinarazten zaizkie herritarrei, baita zerbitzua ematean hartzen diren konpromisoak ere.

d) Zerbitzu publikoaren kalitateagatiko sariak eta Nafarroako administrazio publikoen jardunbide hoberenengatiko sariak sustatzea.

e) Foru lege honek esleitutako eginkizunak burutuko ditu VI. kapituluari aipatzen den organo kolegiatuak, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari dagokionez.

f) Aurrekoen osagarriak diren neurri guztiak, edo zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea eta politika publikoen ebaluazioa bilatzen dutenak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru lege honetako aurreikuspenak Nafarroako administrazio publikoentzat dira, honako hauentzat, alegia:

a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpeko erakunde publikoak.

c) Nafarroako toki entitateak.

d) Nafarroako toki entitateen menpeko erakunde autonomoak.

e) Beste erakunde publiko batzuk, Nafarroako Foru Komunitateko foru legeen bidez sortu edo arautuak, herritarrei zerbitzua ematen dieten heinean.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administratioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen eta Nafarroako toki administratioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aplikazio esparruan sartutako sozietate publikoek ebaluatu ahal dute beren zerbitzuen kalitatea, baita haiek foru lege horien arabera eratutako fundazio publikoek ere; betiere, zerbitzu publikoak

kudeatu beharko dituzte edo interes orokorreko zerbitzuak eman nafarrei.

3. artikulua. Ebaluazioa eta kalitatea.

1. Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko, eredu onartuak hartu eta aplikatuko dira, unitate administratiboen edo administrazio publikoen emaitzak konparatzeko eta esperientziak trukatzeko aukera ematen badute.

2. Ebaluazioa integrala eta objektiboa izanen da, ageriko gauzetan oinarritua, eta emaitzak, ondorioak eta hobekuntza eremuak herritarrei jakinaraziko zaizkie.

3. Zerbitzu publikoen kalitatea honakoen arteko erlazioak emanen du: lortu nahi diren emaitzak, benetan lortu direnak, herritar erabiltzaileek zerbitzu publiko horietatik espero dituztenak eta arlo bakoitzeko legeri indardunak xedatzen duena.

4. Kalitatea neurtzeko, konpromisoak eta haien adierazleak finkatu beharko dira aurretik.

4. artikulua. Printzipio orokorrak.

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko, besteak beste, administrazio publikoak printzipio eta irizpide hauek aplikatzen dituen begiratuko da:

a) Legezatasun demokratikoaren printzipioa, hau da, zer den herritarrentzat gauza publikoen kudeaketa, administrazio publikoak izateko arrazoia dena, politika eta zerbitzu publikoak herritarren behar errealak asetzerantz bideratzen dituenak.

b) Legezatasunaren printzipioa, hau da, legez eta arauz ezarritako prozedurak aplikatuz eta, zein den jarduera, haren funtsezko arauak betez, politika publikoak kudeatu eta zerbitzu publikoak ematea.

c) Eraginkortasunaren printzipioa, hau da, bilatzen diren helburu publikoak lortzea.

d) Efizientziaren printzipioa, hau da, baliabideak ahalik eta hobekiena erabiliz politikak gauzatu eta zerbitzu publikoak ematea, bilatzen diren xede publikoak zuzenean eskuratzeko.

e) Ekonomiaren printzipioa, hau da, bilatzen diren helburuak ahalik eta arrazionalena den kostu ekonomikoarekin lortzea Ogasun Publikoarentzat.

f) Gardentasunaren printzipioa, hau da, administratioaren betebeharra herritarrei, oro har nahiz banan-banan, informazioa emateko bere jarduera burutzen duenean, antolaketaren eta zerbitzu publikoak emateko moduaren gainean; orobat, erantzule publikoen betebeharra, zeregin publikoetan zintzo jokatzeko.

g) Prebentzioaren printzipioa, hau da, sor daitezkeen arazo eta eskaerei aurreratzea politikak diseinatzean eta zerbitzuak kudeatu eta ematean.

h) Lastertasunaren printzipioa, hau da, bilatzen diren helburuak ahalik eta azkarrena lortzea.

i) Unibertsaltasunaren printzipioa, hau da, zerbitzu publikoak berdintasunez ematea, bakoitzak behar duen zerbitzua eskura dezan.

j) Erantzukizunaren printzipioa, hau da, herritarren aurrean betebeharren kargu egitea; zerbitzu publikoek gaizki funtzionatuz gero, neurri egokiak hartzen ditu lehenbailehen zuzentzeko, eta kalteordaina ematen die kaltetuei, legeetan aurreikusitako bezala.

k) Herritarren parte-hartzearen printzipioa, hau da, politika publikoak prestatu eta kudeatzean eta zerbitzu publikoak ematean aplikatzen diren sistema eta metodoen bidez herritarrek aukera dute, banan-banan edo taldean, parte hartu eta iradokitzen, oharrak edo alegazioak egiteko, edo erreklamazio edo kexak aurkezteko zerbitzu publikoek gaizki funtzionatzeagatik; orobat, administrazioak zenbateraino onartzen dituen herritarren proposamenak edo behar bezala ebazten haien erreklamazioak.

l) Beste administrazio publiko batzuekin lan egin eta koordinatzeko printzipioa, hau da, politika edo zerbitzu publiko baten ardura duen administrazioak mekanismoak aplikatzen dituenean, harremana du beste administrazio eskudun batzuekin helburu eta interes publiko komunak lortzeko eta herritarren eskaerak ahalik eta hobekien asetzeko, modurik eraginkorrenean.

m) Koherentziaren printzipioa, hau da, zerbitzuak etenik gabe, ziur eta modu egonkorrean ematea, haustura edo ezustekorik gabe herritarrek ezagutu eta onartzen dituzten egoeretan.

n) Erraztasunaren printzipioa, hau da, tramiteak arindu, alferreko prozedurak kendu eta itxaronaldiak murrizten dituzten teknika eta metodoak erabiltzea.

o) Ulermenaren printzipioa, hau da, erabiltzaileentzat argiak eta ulerterrazak diren arau eta prozedurak izatea, baita mintzaira ulergarriko informazioaren baliabide publikoak erabiltzea ere.

p) Modernizazioaren printzipioa, hau da, teknologia berriak eta antolaketa metodo eraginkor eta parte-hartzaileak erabiltzea, bere egitura administratiboa eguneratu eta berritzearen aldekoa, zerbitzu publikoak emateko modalitateetan eta haietarako azpiegitura, instalazio eta eraikinetan.

q) Etengabeko hobekuntzaren printzipioa, hau da, administrazioa, zenbait metodo abian jarritz, gauza da sistematikoki akatsak atzeman, zuzendu eta herritarrei zerbitzuak gero eta modu efizienterago, eraginkorrerago, ekonomikerago, parte-hartzaileerago eta azkarrerago batean emateko.

II. KAPITULUA

Politika publikoen ebaluazioa

5. artikulua. Ebaluatzeko autonomia.

Administrazio publiko bakoitzak bere aldetik erabaki ahalko du bere eskumenen esparruan diseinatu, burutu edo gauzatuko dituen politika publikoak ebaluatzea.

6. artikulua. Ebaluazioaren eremu materiala.

Politiken ebaluazioak administrazioaren menpeko gaiak osorik hartu ahalko ditu edo gai horiez osatutako sektore homogeneoetara mugatu.

7. artikulua. Ebaluatzeko modalitateak.

1. Administrazioak berak ebaluatu ahalko ditu politika publikoak, bere bitartekoak erabiliz, hirugarren batzuk kontratatuz edo, kanpotik, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea baliatuz, foru lege honen VI. kapituluan arautu bezala.

2. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordeak gauzatuko du kanpoko ebaluazioa, administrazio bakoitzeko organo eskudunak eskatuta. Horretarako, lankidetzaren hitzarmena izenpetu ahalko da eta bertan islatuko da, alde bakoitzaren konpromiso teknikoak, juridikoak, administratiboak eta baita ekonomikoak ere. Kanpoko ebaluaziorako, ebaluatzen den administrazio publikotik kanpoko adituen batzordea sortzea erabaki daiteke.

3. Organo edo entitate publikoek sektore bakoitzeko araudiari jarraituz egiten dituzten ebaluazioak ez dira kanpoko ebaluazioei loturik egonen.

8. artikulua. Xedea.

Politika publikoen ebaluazioak helburu hauxe du: foru lege honen 4. artikuluan aipatutako printzipio eta irizpideak, besteak beste, eta haiei loturiko metodo eta teknikak zenbateraino aplikatu diren jakitea.

9. artikulua. Ebaluatzeko uneak.

Politika publikoen ebaluazioa izan ahal da:

a) Aurrekoa: Politika publikoa planifikatzen edo programatzen denean.

b) Tartekoa: Politika publikoa programatutako aldian aplikatzen den bitartean.

c) Ondokoa: Programatutako politika publikoa burutu ondoren.

10. artikulua. Ebaluazioaren edukiak.

Politika publikoen ebaluazioak, besteak beste, puntu hauei buruzkoak izan ahal dira:

- a) Atzemandako arazoak eta konpondu nahi diren arazoak.
- b) Lortu nahi diren helburuak.
- c) Lortutako emaitzak.
- d) Aurreko hiru elementuen arteko zerikusia.
- e) Ondorioen banaketa.
- f) Zer ondorio atzeman diren eta zein sektoretan.
- g) Erabili diren bitarteko juridiko, tekniko eta administratiboak, baita ekonomikoak eta giza balibideak ere.
- h) Izan den kostua eta emaitzekin duen lotura.
- i) Jarduteko hautatutako prozedurak eta haiek aukeratzeko arrazoiak.
- j) Administrazioarteko lankidetzak, politika presatu eta garatzen.
- k) Herritarren parte-hartzea, politika prestatu eta garatzeko lanean.
- l) Herritarrek jarduketei buruz duten iritzia.
- m) Legeak eta herritarrek duten eskubidea bete ote diren.

11. artikulua. Publizitatea.

1. Administrazio publikoek egokia iruditzen zaien publizitatea emanen diete beren ebaluazioei –ebaluazio publikoak izanen dira–, hoberentzat jotzen dituzten bitarteko teknikoak baliatuz.

2. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordera igorriko dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen ebaluazioak, Politika Publikoak eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatzeko Erregistroan, foru lege honen 23.2 h) artikuluan aipatzen den horretan, sartzeko. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusian dauden informazio iturriekin koordinatuko da.

III. KAPITULUA

Zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa

12. artikulua. Kontzeptua.

Zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa prozesu integral eta iraunkorra da, ezaugarri hauek dituena:

a) Herritarren itxaropenei begira eta unitatean aurrez ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren aztertuz neurtzen ditu emandako zerbitzuak.

b) Lortutako datuetan oinarrituta, hobekuntza programak ezartzen ditu.

13. artikulua. Helburua.

Zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioak helburu hauek ditu:

a) Erakunde administratiboei bilakatzen eta garatzen laguntzen dieten hobekuntza-alderdiak eta -eremuak zein diren jakitea.

b) Unitate administratibo eskudunei behar duten informazioa ematea administrazioaren herritarrendako zerbitzua planifikatu eta zuzentzeko; orobat, beharrezko hobekuntzak abian jartzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak kalitatea eta modernizazioa sustatzeko bultzatzen dituen estrategiekin koordinatuz, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioa eta haren erakunde publikoak ebaluazioraino direnean.

c) Administrazio publikoaren kalitate maileri buruzko informazioa herritarrei helaraztea, jardueira administratiboaren hartzaile direnez.

14. artikulua. Ebaluatzeko sistemak.

Sistema hauen bitartez taxutuko da zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa:

a) Auto-ebaluazioa, unitate edo erakunde bakoitzak egiten duena, bere bitartekoak erabiliz edo hirugarren batzuk kontratatuz.

b) Kanpoko ebaluazioa, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen eskutik, foru lege honen 16. artikuluan aurreikusi bezala.

15. artikulua. Auto-ebaluazioa egiteko sistema.

Metodo hauetako edozein aplikatuz garatuko da auto-ebaluazioa:

a) Zerbitzuen kartak, foru lege honen VI. kapituluaren bidez xedatutakoaren arabera araututa.

b) Kalitatearen Kudeaketarako Fundazio Europarraren (EFQM) Erabateko Kalitatearen Eredua.

c) Ebaluazioaren Esparru Komuna Sektore Publikorako (CAF).

d) Beste edozein metodo, oro har onartua, erabiltzaileen iritzia behar adina eta zehatz jasoko duena, hartutako zerbitzuekin zenbateraino dauden gustura, eta informazio horren ondoriozko hobekuntza programak ezarriko dituen. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa edo haren

menpeko erakunde publikoak direnean, aldez aurretik homologatu beharko du metodoa Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeke Foru Batzordeak.

16. artikulua. Kanpoko ebaluazioaren sistema.

1. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeke Foru Batzordeak burutuko du kanpoko ebaluazioa. Berak baimendutako entitate edo erakunde independenteak erabili ahal ditu, autonomoak eta objektiboak badira.

2. Unitate edo erakundeek egindako auto-ebaluazioetan oinarritutako azterketa sistematikoa izanen da ebaluazioa.

17. artikulua. Kalitatea hobetzeko programak.

Unitate edo erakunde eskudunen arduradunek, ebaluazioak aplikatuta ateratako informazioan oinarrituta, zerbitzuak hobetzeko programak bultzatuko dituzte. Ekintza horiek eta haien emaitza etorkizuneko ebaluazioetan zerbitzua berrikusteko hartu ahal dira kontuan, baita sarien faseko balorazioan ere, foru lege honen V. kapituluaren aipatu bezala.

IV. KAPITULUA **Zerbitzuen kartak**

18. artikulua. Kontzeptua eta hedadura.

1. Zerbitzuen Kartak jendearen esku jartzen diren dokumentuak dira eta Nafarroako administrazio publikoek erabiltzen dituzte herritarrei zerbitzu publikoen berri emateko.

2. Zerbitzuen kartetan administrazio publikoek beren borondatez hartutako konpromisoak sartzen dira, zerbitzu publikoak hobeki emateko; orobat, haiek beteko direla segurtatzen duten adierazleak. Ez dira xedapen arau-emaileak eta ez dute ondorio juridiko loteslerik sortzen.

19. artikulua. Edukia.

1. Zerbitzuen kartek argi eta garbi adieraziko dituzte edukiak, herritarrek ulertzeko moduan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen zerbitzuen kartetan alderdi hauek sartuko dira:

1) Orotarikoak:

a) Zerbitzuen karta prestatzen duen organo edo erakundearen datu bereizgarriak.

b) Burutzen dituen organo edo erakundearen helburu eta eskumenen deskripzio orokorra.

c) Ematen diren zerbitzuen deskripzioa.

d) Herritarrek eta erabiltzaileek zerbitzuak hobetzen lagundu edo parte hartzeko moduak.

e) Prestazioei eta zerbitzuei buruzko arauen zerrenda.

f) Iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko sistema.

2) Ematen diren zerbitzuei buruz hartzen diren konpromisoak, hala nola:

a) Prozedurak izapidatu edo zerbitzuak emateko aurreikusitako epeak.

b) Komunikazio eta informaziorako mekanismoak, jende ororentzakoak edo banakakoak.

c) Jendeari erantzuteko orduategia eta tokiak.

d) Zerbitzua eskuratzen lagunduko duten oharak eta hura emateko modua hobetuko dutenak.

e) Konpromisoak betetzen diren edo ez ebaluatzeke adierazleak.

f) Euskaraz arreta ematea eta tramitatzea, Euskarari buruzko Foru Legearekin bat.

3) Osagarriak:

a) Zerbitzuak ematen dituzten bulego guztien posta-helbideak, telefono zenbakiak eta web guneak.

b) Zerbitzuen kartaz arduratzen den unitatearen posta-helbidea, telefono zenbakia eta web gunea.

c) Kudeaturiko zerbitzuen zabalkunderako bestelako argibideen aipamena.

d) Ematen diren zerbitzuei buruzko bestelako datu interesgarriak.

20. artikulua. Prestakuntza.

Administrazioeko organo eskudun bakoitzak prestatu eta kudeatuko ditu zerbitzuen kartak, eta administrazio osorako izan ahal dira, edo haren menpeko erakunde edo unitateetarako, nola ikusten den egokiena.

Zilegi izanen da kartak egitea, xedetzat zerbitzu bat izanen dutenak, zeinaren kudeaketan administrazio publikoen menpeko zenbait organok, erakundek edo unitatek parte hartuko baitute, horretarako behar den akordioa izenpetuta.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren kasuan, departamentu bakoitzak eta erakunde autonomo bakoitzak bere zerbitzuen karta prestatuko du, foru lege honek indarra hartu eta gehieze ere hiru urteko epean.

21. artikulua. Onarpena, zabalkundea eta jarraipena.

1. Kasu bakoitzeko organo eskudunak onartuko ditu zerbitzuen kartak.

2. Administrazio edo organo bakoitzak burutuko ditu bere zerbitzuen karta zabaltzeko eraginkorragotzat jotzen dituen ekintzak, eta erabiltzaileek ezagutzea bermatuko du, informatikako sistemen bidez edo jendea hartzeko bulego administratibo guztietan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren mepeko erakunde publikoen kasuan, zerbitzuen karten onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, orok jakin dezan.

4. Administrazio publiko bakoitza arduratuko da zerbitzuen karten jarraipena egiteaz egokia iruditzen zaion aldiro.

V. KAPITULUA

Sariak zerbitzu publikoen kalitateari

22. artikulua. Sustapena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zerbitzu publikoaren kalitatea sarituko du Nafarroako administrazio publikoetan, baita praktika egokiak ere. Horrela, aintzatetsi eta sarituko dira herritarrendako zerbitzuaren kalitatea hobetzen nabarmendutako administrazioen menpeko organo eta entitateak, eta aintzatetsiko dira, halaber, zerbitzuen kalitatea hobetzeko ekimenak eta organo eta entitate horien arduradun eta enplegatu publikoak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zuzenean antolatu eta emanen ditu sariak; bestela, fundazioekin edo irabazi asmorik gabeko entitateekin lankidetzan, horiek Nafarroan badihardute kalitatea saritzeko lanetan Europar Batasunean onartutako irizpide eta bikaintasunaren ereduekin.

3. Sariak emateko, kontuan hartuko da erakundeak zer nolako kalitatea eskaintzen dien herritarrei, eta haien iritzia, zerbitzuaren erabiltzaile diren aldetik.

VI. KAPITULUA

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzen foro batzordea

23. artikulua. Zer den eta zer eginkizun dituen.

1. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzen Foro Batzordea sortu da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren

organo kolegiatu gisa, Nafarroako administrazio publikoen politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeaz arduratzeko Nafarroako lurraldean.

2. Hauek dira Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzen Foro Batzordearen eginkizunak:

a) Gauza publikoak ebaluatzen kultura bultzatzea Nafarroako administrazio publikoetan.

b) Planak prestatu eta organo eskudunari proposatzea, bere egin ditzan. Haietan, zerbitzu publikoak hobetzeko ekintzak eta zerbitzuen kalitatea ebaluatzen sistemak aurreikusiko dira, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoetan txertatzeko.

c) Irizpide komunak prestatu eta metodologiak zehaztea, Nafarroako administrazio publikoek erabil ditzaten politika publikoen auto-ebaluazioetan, zerbitzu publikoen kalitatearen auto-ebaluazioetan eta zerbitzuen kartak prestatzeko.

d) Haien gain utzitako edo eskatzen zaizkien politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen kanpoko ebaluazioa.

e) Foru lege edo dekretu mailako xedapen orokorren aurreproiektuen gaineko txostena egitea, politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioarekin zerikusia dutenean.

f) Kalitatearen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko prestakuntza.

g) Zerbitzu publikoen ebaluazioaren gaineko informazioa bildu, aztertu eta, behar izanez gero, metodologiari buruzko proposamenak egitea eta gomendioak ematea.

h) Politika Publikoen eta Zerbitzu Publikoen Kalitatearen Ebaluazioari buruzko Erregistroa, foru lege honen bidez sortua, kudeatzea. Publikoa eta doanekoa izanen da eta, bertan, aplikatzen diren ebaluazio sistemak gorde ahalko dira, baita prestatzen diren hobekuntza programak eta zerbitzuen kartak ere.

i) Ebaluazio arloari aplikatutako ikerketa bultzatzea, beste entitate publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan.

j) Zerbitzu publikoen ebaluazioari eta kalitateari loturiko argitalpenak eta azterlanak sustatzea.

k) Nazioko zein nazioarteko erakunde metodologikoetan parte hartzea, eta antzeko organo eta entitateekin harremanak izatea autonomia erkidegoan, nazioan edo Europar Batasunean.

{0>l) Nafarroako administrazio publikoen inguruan entitate independente publiko edo pribatuek egiten dituzten jarduketak kreditatzea eta, kasu bada, egiaztatzea, eta ebaluaziorako prozesuak eta metodoak homologatzea eta baimendutako profesional independenteak kreditatzea. Horretarako guztirako, behar diren protokoloak sustatuko dira, bermatzeko ezen profesionalak eta metodoak egiaztatu, kreditatu eta homologatzeko eginkizunak nazioaren eta nazioartearen erreferentzia-esparruan txertatzen direla.

m) Zerbitzu publikoei buruz herritarrek duten iritziri buruzko azterketak egitea, hobekuntzarako ekimen orokorrak proposatu ahal izateko eta herritarrei zerbitzu-ematearen kalitateari buruzko informazio orokorra helarazi ahal izateko.

l) m) Eragile sozioekonomikoak eta sektore publikoan kalitatea sustatzeko sektoreko profesional eta entitateak ordezkatzeko dituzten informazio-emaile funtsezkoekin komunikazioan egoteko sistema bat eratzea, eskainitako zerbitzuen kalitateari buruzko balorazioa osatzearren eta herritarren partaidetza sustatzearren.

3. La Comisión Foral para la Evaluación de las Políticas Públicas y la Calidad de los Servicios Públicos se compondrá del siguiente modo: Honela osatuko da Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea:

a) Batzordeburua: Nafarroako Gobernuak erabaki bidez izendatuko du.

b) Kideak:

- Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko ordezkari bat.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat.

- Toki Administrazioiko Departamentuko ordezkari bat.

- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko hiru ordezkari.

- Nafarroako Kalitatearen aldeko Fundazioko ordezkari bat.

Askatasun sindikalari buruzko Lege Organikoaren arabera ordezkariarik handienekoak diren bi sindikatuetatik ordezkari bana.

c) Idazkaria: funtzionario edo langile publiko bat, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak izendatua.

Foru dekretu bidez zabaldu ahal da batzordearen osaera, politika publikoen eta zerbitzu publiko-

en kalitatearen ebaluazioari zuzenean loturiko beste unitate edo entitate batzuk sartzeko.

Orobat, adituak edo entitateetako ordezkariak edo pertsonak gonbidatu ahal ditu batzordeak, landu beharreko gaia edo arloa zein den ikusita.

4. Bere xedeak bete daitezenean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eskuratzen dizkion bitarteko materialak eta giza baliabideak izanen ditu batzordeak, hari atxikita egonen baita.

24. artikulua. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan aritzeari buruzko akordioa.

Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordeak proposaturik, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan aritzeko akordio bat sina dadin sustatuko du, foru lege honek jasotako neurriak Nafarroako udal eta gainerako toki entitateetara hedatzea ahalbidetzeko.

VII. KAPITULUA

Herritarren eskariaren eta horien gogobetetasun-mailaren azterketa

25. artikulua. Definizioa.

1. Nafarroako administrazio publiko bakoitzak, erabiltzaileen iritzia jakiteko eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko, eskariari buruzko azterlanak eta erabiltzaileek haien zerbitzuei dagokienez duten asebetetze-maila ebaluatzekoak egin ahalko ditu, horretarako ikerketa-teknika kualitatibo eta kuantitatiboak erabiliz.

2. Eskariari buruzko azterketen helburua izanen da jakitea erabiltzaileek zer behar eta zer itxaropen dituzten zerbitzuaren funtsezko alderdiei dagokienez; honakoei buruz, bereziki: zerbitzua izateko baldintzak, moduak eta bideak, eta erantzun-denborak. Azterketa horien aldizkakotasuna, ezartzekotan, zerbitzuen kartan ezarriko da.

3. Erabiltzaileen asebetetzea ebaluatzeko lanen helburua izanen da neurtzea horiek duten pertzepzioa organizazioari eta ematen dituen zerbitzuei buruz. Pertzepzioaren neurketak era sistematiko eta jarraian eginen dira.

26. artikulua. Fidagarritasun eta ziurtasun bermeak.

1. Ikerketa lanak diseinatzeko –inkestak, zundaketak, elkarrizketak, eztabaida taldeak edo beste edozein dela ere–, erabiliko diren erreferentzia-ereduek zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak errespetatuko dituzte, erabiltzailearen ikuspegitik garrantzitsuak diren alderdiak edo

ezaugarriak aurreikusiko dituzte eta bidea emanen dute emaitzak finkatzeko eta alderatzeko geroago.

2. Ikerketa lanek konfidentzialtasun bermeak izan beharko dituzte parte hartzen duten pertsonentzat, eta esparru metodologiko orokor baten baitan gauzatuko dira.

“27. artikulua. Emaitzak.

Ikerketa lanen emaitzak foru lege honetan jasotako neurriak gauzatzean erabiliko dira; bereziki, zerbitzuen kartak prestatzeko eta gaurkotzeko prozesuan, eta, kasua bada, hobetze etengabeko beste ekintza batzuei ekiteko.

VIII. KAPITULUA

Kexak eta iradokizunak

28. artikulua. Definizioa.

Nafarroako administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du zer unitate arduratuko den edo diren kexen eta iradokizunen kudeaketaz, era horretan jaso eta tramitatu ahal izateko bai erabiltzaileek zerbitzu publikoak direla-eta adierazitako arrangurak bai zerbitzuen kalitatea hobetzeko ekimenak.

Halaber, unitate horrek erantzun bat eskaini beharko die herritarrei beren kexen edo iradokizunen ondorioz, eta eginiko jardueri nahiz, kasua bada, harturiko neurriei buruzko informazioa eman beharko die.

29. artikulua. Kexen eta iradokizunen aurkezpena eta tramitazioa.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen unitateak administrazio publiko bakoitzaren barrenean duen kokalekua seinalizatuko da ikusi ahal izateko moduan, eta kokaleku hori erabiltzaileentzat egokiena izanen da, bertara iritsi eta erabili ahal izan dezaten.

2. Erabiltzaileek beren kexak edo iradokizunak aurkeztu ahalko dituzte bertara joanez, posta arruntez edo bitarteko telematikoak erabiliz. Posta elektronikoz edo internet bitartez aurkezturiko kexek interesdunaren sinadura elektronikoarekin edo administrazio publiko bakoitzak ezartzen duen sistema alternatiboarekin izenpetuta egon beharko dute.

3. Kexak edo iradokizunak aurkezten badira bertara joanez, haien jomuga den organo edo organismoak horretarako propio prestatuturiko inprimakia edo erregistroa bete eta sinatuko du erabiltzaileak. Erabiltzaileek nahi badute, kasuko funtzionarioek laguntza eman ahalko diete haien kexa edo iradokizuna adierazteko.

4. Kexak eta iradokizunak aurreko idatz-zatietan zehaztutako moduan adierazi ondoren, erabiltzaileei haiek aurkeztu izanaren frogua emanen zaie, unitateak adieraziko dien bitartekoa erabiliz.

5. Kexa eta iradokizunen iturri diren zioak, bai eta hizpide dituzten gaiak ere, identifikatzeko, kexak eta iradokizunak halako moduz sailkatuko dira non zerbitzua eman eta hobetzeari buruzko informazio muntaduna emanen baitute.

30. artikulua. Erantzuna.

1. Kexa edo iradokizuna jaso ondoren, 28. artikulua aipatzen duen unitateak hilabeteko epean informazioa emanen dio interesdunari eginiko jarduketei buruz.

2. Epe horren igarotzea eten ahalko da baldin eta interesdunari eskatu behar bazaio behar diren argibideak aurkez ditzan, hamar egun balioduneko epean, kexa edo iradokizuna behar bezala tramitatzeko.

3. Baldin eta, ezarritako epea igaro ondoren, administrazioaren inolako erantzunik ez badu jaso, herritarrek kasuko unitatearen gaineko agintea duen kontseilariarengana edo toki entitatearen lehendakariarengana jo ahalko du, ezertan galarazi gabe egokitzen den organoari eginiko eskuordetzea, erantzunik ezaren zergatiak jakiteko eta organo horiek behar diren neurriak hartzea proposa dezaten.

31. artikulua. Jarraipena.

Jasotako kexa eta iradokizunen jarraipenari buruzko informazioa, bai eta emandako erantzunena eta harturiko neurriena, kasua bada, urtero egingen den baterako oroit-idazki orokor eta departamentu-esparrukoan bilduko da.

32. artikulua. Ondorioak.

Foru lege honen arabera aurkezturiko kexek ez dute ezerein kasutan izan administrazio-errekurtso kalifikaziorik, eta haiek aurkezteak ere ez ditu etenen indarreko araudian ezarritako epeak. Kexa horiek ez dute inola baldintzatzen prozeduran beren burua interesduntzat dutenek prozedura bakoitzari buruzko araudiari jarraituz gainerako akzioak edo eskubideak egikaritu ahal izatea.

Lehenengo xedapen gehigarria. Foru legearen aplikazioaren norainokoa.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik hiru urte igarota, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordeak txosten bat egingen du foru legearen aplikazioaren norainokoari buruz eta proposatzeko modukotzat

jotzen dituen hobekuntzei buruz. Txosten hori Nafarroako Gobernura igorriko da.

2. Nafarroako Gobernuak, txosten hori ikusirik, eta komenigarritzat jotzen badu, Nafarroako Parlamentura foru lege proiektu bat igorriko du, non jasoko baitira beharrezkoak diren aldaketak bai eta, kasua bada, Nafarroako administrazio publiko-etan politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko nahitaezko plan eta programak ezartzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Langile publikoen parte-hartzea.

Nafarroako Gobernuak bultzada emanen dio langile publikoek kalitatearen sustapen eta kudeaketan parte hartzeari, eta horretarako, kasua bada,

beharrezkoak diren lege-aldaketak eta prestakuntza-ekintzak abiaraziko ditu.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendurak emateko baimena.

Nafarroako Gobernuak badu ahalmena foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Legea, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Legean –2005eko abenduaren 12ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua– akatsak antzeman dira. Honen bidez zuzentzen dira:

Lehena. 6 orrialdean, eskuineko zutabeko azkenaurreko lerrokadaren hasieran, honako hau esaten du:

“Adingabeei arreta integrala emateko Foru Legean”

Eta hau esan behar du:

“Foru lege honetan”

Bigarrena. 7. orrialdean, 3. idatz-zatiko lehenbiziko lerrokadan, hau esaten duen lekuan:

“Adingabeei arreta integrala emateko foru lege honek atariko titulu bat, zazpi titulu, zazpi xedapen

gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen ditu.”

Hau esan behar du:

“Foru lege honek atariko titulu bat, zazpi titulu, zazpi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen ditu.”

Hirugarrena. 36. orrialdean, azken xedapenentzen lehenean, honako hau esaten du:

“... 80.3”

Eta hau esan behar du:

“... 80”

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzea, N-121 errepidean baitago, hobe dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzea, N-121 errepidean baitago, hobe dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztatbaida eta bozketa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztatbaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztatbaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena:

N-121 errepideko Los Abetos izeneko bidegurutzea gure errepideen sareko puntu beltzetako bat da. Bidegurutzea arriskutsua bada ere eta puntu beltzak deuseztatzeko planak gorabehera, Nafarroako Gobernuak urteak daramatza bideen elkargune horren arriskuak gutxitzeko behar diren hobekuntzak egin gabe.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121 errepideko Los Abetos izeneko bidegurutzean behar diren jarduketak egin ditzan, egun daukan egituraren arriskuak gutxitzeko; jarduketa horien artean, gutxienez, honakoak gauzatuko dira: seinale horizontal eta bertikalen hobetzea, hiru elkarguneen erreforma eta argiak jartzea.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Eleduna: Fernando Puras Gil

F saila:
GALDERAK

Galdera, abiadura handiko tren eraiki, finantzatu eta mantentzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea abiadura handiko tren eraiki, finantzatu eta mantentzeari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, osoko bilkuran ahoz erantzun dakion.

Eusko Jaurlaritzak aspaldidanik gauzatu ditu kudeaketak, ekimenak eta proiektuak autonomia

erkidego horretako hiru hiriburuak Abiadura Handiko Trenaren bitartez lotzeko.

Nafarroa beti haietatik kanpo egon da, eta bertako gobernuak egin duen gauza bakarra izan da nolabaiteko interesa erakutsi Abiadura Handiko Trenak Nafarroa zeharka zezan.

Berriki, Nafarroako Gobernuak adierazpen publikoak egin ditu, aurreko jarrerak zuzenduz eta esanez Nafarroak bilatzen duela Abiadura Handiko Trenarekiko loturak zerikusia izatea euskal Y-arekin.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zein hartu-eman eta kudeaketa egin dira Estatuko gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Abiadura Handiko Trenaren obrak Nafarroan egin, finantzatu eta mantentzeko?

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Espainiako Gobernuarekiko harremanen balioespenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Espainiako Gobernuarekiko harremanen balioespenari buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzuteko Nafarroako Parlamenturen osoko bilkuran.

Nolako balorazioa egiten du Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekiko harremanari buruz?

Iruñean, 2005eko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien.

2005eko martxoaren 22an indarra hartu zuen Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuak.

Parlamentu-talde honek aurrekontuen eztabaidan zehar erakutsi du zein baliabide gutxi jartzen diren alde zaharretako eraikinak zaharberritzeko.

Alde zaharrak, izan ere, hirien funtsezko nortasuna dira eta une honetan arrisku larrian daude.

Parlamentu-talde honek jakin du dekretu horrek, askotan, alde zahararen arazoari konponbidea eman beharrean, beste oztopo bat ekarri duela hirietako alde zaharrak zaharberritu eta birgaitzeko ahaleginak egiterakoan, zeren eta neurri horrekin batera ez baitira behar diren baliabide ekonomikoak jarri.

Horrenbestez, eta ikusita dekretu horren eraginez Iruñeko alde zaharreko etxebizitzetatik ehuneko 40 beharrezkoa den bizigarritasun-zedularik gabe geratu dela, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Nolako eragina izan du martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuak alde zaharretan, zaharberritzea sustatzeari dagokionez?

– Zein neurri aurreikusi dira aipatu dekretuak indarra hartu aurretik abian zeuden zaharberritze prozesuetan ez dadin bidegabeki pairatu dekretuak ekarritako egoera, zeinak ekar baitezake eraikinak zaharberrituta ere bizigarritasun-zelularik eskuratzeko modurik ez izatea?

– Aurreikusia al du errealitateari egokitzea eta dekretua malgutzea alde zaharreko etxebizitzak

gaitzea ahalbidetzeko eta sustatzeko, gainerako hirietan egin den bezala?

Iruñean, 2005eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakitekoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Azken egun hauetan, maiz agertu da egunkarietan Abiadura Handiko Trenari buruzko informazioa. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakia dago, alegia, euskal Y-aren obrei ekitea Estatuarekin finantzaketa-akordio bat sinatuta. Bestalde, foru gobernuaren iritziak daude; hain zuzen ere, antzeko formula bati atxiki nahi zaizkio Abiadura Handiko Trenaren korridorea egiteko Nafarroan.

Parlamentari honen ustez, Nafarroako Gobernua, azpiegitura hau Nafarroan garatzeari dagokionez, berandu iritsi da argi definitzera nola, nondik eta zein modutan komunikatu behar den bide estrategiko hau Euskal Autonomia Erkidegoarekin, eta, bestalde, obra nola finantzatuko den.

Askotan, Iruñeko geltoki berria proposatzeko eta trenbidearen kiribilgunea deitu izan dena sortzeko kezka soilarekin, udalek, Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak osaturiko batzorde politiko bat sortzeko iradokizuna egin dugu. Proposamen hori ez da aintzat hartu. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu ondokoei erantzutea.

1.- Zein egoeratan dago Abiadura Handiko Trenaren Nafarroarako proiektuaren tramitazio administratiboa?

2.- Zein urrats eman dira Sustapen Ministerioarekin, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako pasabidearen proiektuaren epeei eta haiek betazeari dagokienez?

3.- Talde honi interesatzen zaio ezagutzea Herrilan Departamentuan azpiegitura honi buruz dagoen dokumentazioa.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, diabetesa duten pertsonentzako podologiako laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko.

Orain dela gutxi, Nafarroako Diabetikoen Elkartea parlamentu honetara etorri zen, eta jakitera

eman ziguten Espainiako Diabetikoen Federazioaren azken batzar nagusian erabaki zela beste kampaia bat egitea.

Zehazki, ekintza horren helburua da eskatzea diabetesa duten pertsonentzako podologia laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sar dadin.

Eskari horren oinarri, informazio bat aurkezten dute. Seguruena Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ongi dakien zerbait da, eta lotuta dago kontrolatu gabeko diabetesak osasunean dauzkan ondorioekin, infekzioak hain zuzen ere, eta, batzuetan, anputazioak.

Aurrekoa dela eta, jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak aintzat hartuko ote duen aipatu eskaria; hau da, diabetesa duten pertsonentzako podologia laguntza prebentiboa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen barruan sartzea.

Iruñean, 2005eko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 2005. urteko prestakuntza plana, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak taxutua, betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatutako 2005eko prestakuntza planak Nafarroako administrazio publikoetako langileei zuzendutako zenbait prestakuntza jarduera eta ikastaro egitea jasotzen zuen.

2005eko ekitaldia bukatuta, Nafarroako Gobernuak ondoko informazioa ematea nahi dugu, pres-

takuntza plan horren betetzea ebaluatu ahal izateko:

Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetarik zenbat eman diren egiazki, titulu ezberdinen eta talde ezberdinen kopuruak, eta horietara joan den ikasle kopurua.

– Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetarik zenbat gelditu diren egin gabe. Haien zerrenda nahi dugu. Adierazi zer ikastaro diren, zenbat plaza aurreikusten ziren eta zergatik ez diren egin.

– Zenbat langilek eskatu zuten ikastaroetan parte hartzea. Kasua bada, ikastaroak egitea eskatu baina erantzunik jaso ez zuten langileen kopurua. Ikastaroak beraiek eskatuta egin dituzten langileen kopurua eta ukitutako zerbitzuaren ekimenez edota sarrera eta igoera prozeduren barruan egin dituztenen kopurua.

– 2005eko prestakuntza planean hasiera batean aurreikusitako jardueren kostu osoa, eta egiazki egin direnen kostu osoa. Adierazi zein kontusailen kargura ordaindu diren.

Iruñean, 2005eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

– Zein arrazoi, motibo edo zergati direla-eta ari dira atzeratzen Tutera-Ejea de los Caballeros (Zaragozako muga) errepideko obrak, eta, horrenbestez, bide hori trafikora zabaltzeko unea? Gogoa izan bidea obrei ekiteko itxi zutela eta, horrenbestez, erabiltzaileek berrogei kilometro baino gehiagoko buelta egin behar izaten dutela.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

Galdera, Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzuteko.

2004an, Gizarte Ongizate Batzordea, Alli jaunarekin batera, garai hartan departamentuan ardurak baitzituen, bisitan joan zen Irunberriko San Isidro egoitzara. Bisita hartan jakinarazi zitzaizgun, besteak beste, bisitatu genuen egoitzari erantsitako pabiloi batean bete gabeko 30 toki zeudela.

Bisita hartatik urtebete baino gehiago iragan denean, ondoko alderdiei buruzko informazioa nahi dugu.

Zer proposatu du Gizarte Ongizate Departamentuak toki horiek okupatzeari begira?

Proposamenen bat badago, zein da?

Noiz jarriko da abian akordioa, hitzarmena edo ezarri nahi den formula?

Iruñean, 2005eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari.

Erriberako leku batzuetan modan jarri da etxolak eraikitzea. Gero publizitate-iragarkien bitartez saltzen dira; esate baterako, Lor aintzira naturalerako bistadun bigarren etxebizitza gisa saltzen direnak. Errealitate horrek alarma piztu du, eta udalerrri ezberdinetako auzo-lagunen plataforma bat eratu da, hain zuzen ere ordena gutxiarekin eta are antolamendu gutxiagorekin sortu den hirigintza-garapen horri aurka egiteko.

Departamentuak, egunkarietan islatu denaren arabera, esku hartu du Erriberako herriren batean halako egoera batean. Une honetan, jakin nahi dugu zein den Ablitasko udal mugapean landa eremuko etxolak urbanizatzearen proposamenaren legezko egoera eta egoera administratiboa.

Ablitasko hasi den urbanizazioari buruz Etxebizitza Departamentuan dagoen espedienteari buruzko informazioa eskatzen dugu.

Iruñean, 2005eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Eguna dela-eta antolatutako ekitaldiei buruz Nafarroako Gobernuak eledunak emaniko datuen harira, honakoa jakin nahi dugu:

1. Nola jakin da zenbat jende joan zen antolatutako ekitaldietara?

2. Zenbateko kostua izan du Nafarroako Eguna gobernuarentzat?

3. Zein enpresa kontratatu dira ekitaldiak antolatzeko? Zer kostu izan du kontratazio horrek eta zein sistema erabili da kontratazioa egiteko?

4. Zein departamentuk antolatu zituen ekitaldiak eta nola antolatu ziren gobernuak aipatzen dituen 74 kontzertuak?

5. Zenbateko gastua egin zen Nafarroako Eguna atzerrian ospatzeko ekitaldietan? Gobernuko edo administrazioko edo erakundeetako zein pertsonak hartu zuten parte?

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak itun bat izenpetu zuen Aspace Navarra elkartearekin ezgaitasun fisiko larria dutenentzako laguntza zerbitzu bat kudeatzeko Cordovillako Infanta Elena Zentroan; zehazki, 12 toki eguneko zentroan, eta 70 toki egoitzan.

Hori dela eta, zenbait galdera egin nuen egoitzako eta eguneko zentroko tokien okupazioari buruz.

Lortutako erantzunak ikusita, baieztatu daitezke zentro horretako tokien okupazioak behera egin duela 2004an eta 2005ean.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Infanta Elena zentroko eguneko zentroan?

2. - Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak itun bat izenpetu zuen Aspace Navarra elkartearekin garun-perlesia duten ezgaituentzako zerbitzu bat kudeatzeko, honako toki hauek erreserbatu eta betez: 100 toki Ramón y Cajal eguneko zentro-

an, 34 toki Ramón y Cajal egoitzan eta 16 toki Uxane zentro okupazionalan.

Hori dela eta, zenbait galdera egin nuen egoitzako eta eguneko zentroko tokien okupazioari buruz.

Lortutako erantzunak ikusita, baieztatu daiteke zentro horretako tokien okupazioak behera egin duela 2004an eta 2005ean.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Ramón y Cajal zentroko eguneko zentroan?

2.- Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

3.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Ramón y Cajal zentroko egoitzan modu ez iraunkorrean daudenen artean?

4.- Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2005eko abenduaren 13an, honako ebazpen hau eman zuen:

Ikusirik Nafarroako Comptos Ganberaren 2005erako plantilla organikoan bete nahi den administrari lanpostuaren gainean erakunde horretako idazkari nagusiak eta administratzaileak prestatu dituzten txostenak eta, kontuan harturik Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetza Zerbitzuek ere adostasun txostenak eman dituztela, Lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako administrari izateko lanpostu bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Ondoren ematen dira haren arauak.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2005eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako administrari lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako arauak:

1. araua. Orotariko baldintzak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Comptos Ganberako administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta, horren osagarri, Nafarroako Administrazio Publiko- etako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintza-

ko Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua. Izan ere, lehiaketa erregelamendu horren 10. artikulua xedatzen duenari jarraikiz eginen da, lanpostu hutsaren maila duten lanpostuetan dauden funtzionarioendako irekia delakoz.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario-entzat eta, bereziki, administrarien kidegokoentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Bere eginkizunak Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketarako Ganberako lehendakariak 1996ko maiatzaren 20an emaniko ebazpenaren bidez onetsi zuen Erregelamenduen 13.2. artikuluan ezarri zirenak dira (1996ko maiatzaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala), alegia, besteak beste ondoko hauek: Comptos Ganberako zerbitzu eta organoei administrazio laguntza ematea, Ganberako agiri, euskarri informatikoak, artxibo nagusia eta liburutegia antolatu eta zaintzea, administrazio espedienteen tratamendua eta segimendua egitea, txostenak eta gainerako agiriak transkribatu eta inprimatzea, erregistro orokorra kudeatzea eta, oro har, erakundeko administratzaileak, bere eskumenen esparruan, agintzen dizkion eginkizun guztiak.

1.4. Lanpostua C mailakoa da eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Comptos Ganberaren plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkie, alegia, epaimahaiak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. araua. Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-

postu horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko, Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) C mailako funtzionarioa izatea.

b) Goi Mailako Batxilergoko, Bigarren Mailako Lanbide Heziketako edo ofizialki

haien baliokide den titulu baten jabe izatea.

c) Administrari, administrari-ofizial edo gisako lanpostu baterako izendatua izatea, baldin eta lanpostu hartako eginkizun nagusietako batzuk deialdi honetako 1. arauaren 3. idatz-zatian adierazita-koak badira.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaien.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. arauan ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak iraun bitartean. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. araua. Eskabideak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izendeiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, halakorik badute.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Deialdi honen 2. arauan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorriko zaizkio, eta egun eta ordu baliiodunetan (astelehenetik ostiralera

8:30etik 14:30era) aurkeztuko dira Nafarroako Comptos Ganberako Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

3.4. Minusbaliotasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako minusbaliotasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera minusbaliatuak direla frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. araua. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta onartutako izangaien izen-deiturak erakutsiko ditu.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, lekualdatze-lehiaketa hutsik gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du organo eskudunak. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

4.5. Aztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. araua. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Mahaiburua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Ordezkoa: Ignacio Cabeza Del Salvador jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Mahaikideak:

– Joxe Julen Fernández Goñi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako administraria, erakundeko langileen batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Teresa Elizalde del Rincón andrea, Nafarroako Comptos Ganberako administraria, erakundeko langileen batzordeak izendatua.

– Isabel Martínez Cía andrea, Nafarroako Comptos Ganberako administratzailea, epaimahai-ko idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: María Julia Elizalde Elizalde andrea, Nafarroako Comptos Ganberako administraria.

5.2. Epaimahaia izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta mahai-buruak kalitatezko botoa izanen du.

5.4. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

6. araua. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Lanpostuak Betetzeko Erregelamenduaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lekualdatze lehiaketa honetan ondokoa hartuko da kontuan:

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak: gehienez ere 35 puntu.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa eta beste merezimendu batzuk: gehienez ere 25 puntu.

c) Txosten psikoteknikoa: gehienez ere 15 puntu.

d) Lanpostuaren eduki eta eginkizunei buruzko proba praktikoa: gehienez ere 25 puntu.

Atal horiek deialdi honen I. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Epaimahaiak erabakitzen ahalko du aurreko c) ataleko txosten psikoteknikoa d) ataleko proba praktikokoaren ondoren egitea.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak lekualdatze

lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du emanen merezimenduen atal bakoitzarendako adierazitako puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiatzaileek lehiaketan guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzinatasunik handiena dutenen alde joko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesatuek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten. Iragarki horretan txosten psikoteknikoa eta proba praktikoa egiteko tokia eta egun-orduak jakinaraziko dira.

7. araua. Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. Deialdiko 6.5 arauan aipatzen diren erreklamazioen gainean ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du.

Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

7.2. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiari emanen dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. araua. Lanpostua hartzea.

8.1. Izangaiak izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaienetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela hartuko da, eta hala

izanik, aurreko arauan adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. araua. Aurkeztutako agiriak.

9.1. Izangaiak espresuki hala eskatuz gero, aurkezturiko agiriak berreskuratzen ahal dituzte, erreklamaziorik edo errekurtsorik paratu ez bada betiere. Agiriak berreskuratzeke eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahal da, lanpostuak esleitzeko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta beste hiru hilabeteren buruan.

9.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eramane gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeke. Agiriak eramaten ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

10. araua. Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako arauen, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko Salari zuzendua, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) *Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak: 35 puntu bitarte.*

1. Deialdi honetako maila, talde eta titulazioko lanpostuetan, edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuak: 1,50 puntu urte bakoitzeko.

2. Edozein administrazio publikotan, aurrekoak ez bezalako lanpostuetan egindako zerbitzuak: 0,37 puntu urte bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako denborari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie lehiatzaileei.

2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

3. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldi-tako zerbitzuak egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa eta beste merezimendu batzuk: gehienez ere 25 puntu.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 10 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko prestakuntza jardueretan, ikastorduen zatikiak hainbanatuko dira.

2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Biltzar edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo saria jaso duten zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 3 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez 2 puntu, haien iraupenaren arabera epaimahaiak baloratu beharrekoak.

4) Titulazio eta espezialitate akademikoak, deialdian eskatutakoak ez direnak: 4 puntu gehienez.

5) Doktore edo lizentziatu maila, deialdian eskatutako titulazioari buruz: 2 puntu gehienez.

6) Bestelako merezimenduak, epaimahaiak baloratu beharrekoak: besteak beste, sektore pribatuan egindako lanak, bekak edo prestakuntza egonaldiak, hizkuntzak jakitea, kontsulta egiteko, aholku emateko, parte hartzeko edo ordezkarietako organoetan parte hartzea: 4 puntu gehienez.

Oharrak b) atal osorako:

1. Idatz-zati honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuarekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira eta emandako balorazioak proportzioa gordeko du deialdiko lanpostuaren ezaugarrietara moldatzeko merezimenduek duten egokitze mailarekin.

c) Txosten psikoteknikoa: gehienez ere 15 puntu.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Prestakuntza eta Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, egoki diren probak egin ondoren, txosten psikotekniko bat emanen du lehiatzaile bakoitzari buruz. Horretan, norbera deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta ezaugarriak nola egokitzen zaien baloratuko da.

Aipaturiko zerbitzuak txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari esleitzen dion puntuazioa lotzaila izanen da lehiaketako epaimahaiarentzat.

d) Lanpostuaren eduki eta eginkizunei buruzko proba praktikoa: gehienez ere 25 puntu.

Bi ariketa egin beharko dira, idatziak, bakoitza bi orduko denboran, gehienez ere, eta ariketa bakoitzari, gehienez ere, 12,50 puntu emanen zaio.

- Lehenbizikoa honako hauen gainekoa izanen da, galdera batzuen bitartez: Nafarroako Foru Errentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko Foru Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea, Nafarroako Parlamentuko Langile-riaren Estatutua, Nafarroako Administrazio Publi-

koen Zerbitzuko Langilearen Estatutua eta, azkenik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean bildutako kontabilitate publikoaren oinarriko kontzeptuak.

- Bigarren ariketa Comptos Ganberako administrari lana betetzeko ezinbestekoak diren informatika oinarrien gaineko proba praktikoa izanen da: hardwarea, softwarea (Word, Access eta Excel) eta Windows sistema operatiboa, bai eta internet (Explorer) eta posta elektronikoa (Outlook) ere.

Lehiaketako epaimahaiak egokitzen jotzen badu, lehen ariketa egin eta ahoz azalduko du izangai bakoitzak. Halaber, saio horretan izangaia-merezimenduei eta lanpostuaren ezaugarriekiko egokitzen dagozkien hainbat puntu jorratzen ahalko dira.

Proba hori baztergarria izanen da. Gutxienez ere 12,50 puntu behar dira, bi ariketak bildurik, gainditzeko.

Proba hau gainditzen duten izangaiek lorturiko puntuazioa lehiaketako gainerako ataletako puntuazioari batuko zaio, bakoitzak guztira lorturiko puntuazioa jakiteko.

II. ERANSKINA

Eskabide eredia

Izen-deiturak:, adina:, NAN zenbakia:, helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): telefono zenbakia:, adeitasunez,

Honako hau azaltzen dut:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2005eko abenduaren 13an harturiko erabakiaren berri izan dut - haren bidez, administrari izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko dei egin da- eta hartan parte hartu nahi dut.

Deialdiko 2. arauan eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horrenbestez,

Eskatzen dut:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2006koaren(e)an.

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa.

Izendapen proposamena

Aipatutako lehiaketaren epaimahaiak, 2005eko abenduaren 23an egindako bileran, hurrengo erabakiak hartu zituen:

1. Nafarroako Parlamentuko iragarki taulan jakinaraztea gainditu dutenen zerrenda, lorturiko puntuazioaren arabera.

Ordena	Izen-abizenak	1	2	3	GUZTIRA
1	Balduz Gil, Jorge	35	32	14,9	81,9
2	Marticoarena Chapa, Xabier Iñigo	25	30,67	15,4	71,07
3	Sáinz de Vicuña Gil, M. ^a Nieves	24	26,67	13,2	63,87

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen proposamena, Jorge Balduz Gil jaunarena alegia, deialdian jasotako tramiteekin jarrai dadin izendapena egitearren.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Epaimahaiko lehendakaria: M^a Jesús Aranda Lasheras

Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2006. urterako ordutegi ofiziala.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak honako erabakia hartu du:

«Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala hartzearen ondorioetarako, lehendakaritza honek honakoa erabaki du:

Lehena. Ezartzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2006. urterako ordutegi ofiziala 8:30etan hasi eta 14:30etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea, Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Oro-

korra itxita egonen dela Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 12ko 167/2004 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jai egunetan, bai eta uztailaren 6, 11, 12, 13 eta 14an, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau igortzea Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari eta erakunde horretako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.»

Iruñean, 2005eko abenduaren 27an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 27an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Heldu den 2006ko urtarrilaren 10ean bukatuko da Nafarroako Kontseiluko kideen agintaldia, 2000ko urtarrilaren 10ean erakundea eratzean hasi zena. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen bost kide berriak hautatzeko prozedurari ekin behar zaio.

Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren txostena ikusita eta kontutan hartuta Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak –Mahaiak 1999ko urriaren 13ko erabakiaren bidez onetsiak– eta Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 4. artikulua, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Kontseiluko kide berriak hautatzeko, zeinen agintaldia heldu den 2006ko urtarrilaren 10ean bukatzen da, erabiltzea Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak. Arau horiek Legebiltzarreko Mahaiak 1999ko urriaren 13ko erabakiaren bidez onetsi eta 1999ko urriaren 20ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Salbuespen bakarra da 4. oinarria, hautagaiak aurkezteko epea alegia, zeina 2006ko urtarrilaren 26ko 12:00etan bukatuko baita.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta parlamentu-taldekako eledunei igortzea.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

